

Oposiciones docentes 2025/ 2025 irakasle oposizioak		
Cuerpo o puesto/ Kidegoa edo lanpostua:	Especialidad/Espezialitatea:	Idioma/ Hizkuntza:
0590	KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK	Euskara
PRUEBA PRÁCTICA-PROBA PRAKTIKOA		

"Ipar Hezi" Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua Nafarroako Foru Komunitatean dago, hirigune batean eta kultura- eta gizarte-errotze handiko auzo batean. Bere hezkuntza-eskaintzan, Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak lanbide-arloko erdi eta goi mailako zikloak daude, besteak beste.

Auzoak hainbat zerbitzu publiko eta pribatu ditu (adinekoen egoitza, haur-eskola, ludoteka, gazte-gunea, haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako eskolak, etab.), eta gizarte-kohesioa dinamizatzea, parte-hartzea sustatzea eta jarduera komunitarioetan bizilagunen lankidetzaren bultzatzea helburu duen prozesu komunitario bati ekin dio.

Testuinguru horretan, herrian **belaunaldien arteko programa bat** bultzatu nahi da, eta Gizarte eta Kultura Zerbitzuen lanbide-arloko ikasleek parte hartzea eskatzen da. Mintegiko irakasleek ikasleen prestakuntzarako proposamena oso aberasgarria dela uste dute, eta ikasgelan aurkeztuko dute.

Espezialitateko irakasle batek bezala, eskari horri erantzuteko **proiektu didaktiko txiki bat** egin. Sartu zure erantzunean hurrengoak:

- Proposamen didaktikoa lanbide-arloko ziklo, ikasturte eta moduluetakoren batean kokapena, erabakia arrazoituz.
- Proiektuaren justifikazioa eta oinarria.
- Helburu orokorra (k) eta espezifikoak (k)
- Ikasleekin egin beharreko jarduerak
- Denboralizazioa eta baliabideak
- Landutako zeharkako gaiak
- Ebaluazioa